

Aberri Eguneko ekitaldia gaur Gudarien plazan 'Euskal Herria eraikitzen' lemarekin

■ 'Hernaniko Udalbiltzak' egin du deia ■ 12:00etan hasiko da ■ EA eta EAJ-ko udal ordezkariak Udalbiltzako zuzendaritzak Gernikan duen ekitaldian izango dira.

URTERO bezala, Pazko Igandez Aberri Eguna ospatuko da Euskal Herriko zenbait herri-tan. 'Hernaniko Udalbiltzak' orduerdi inguruko ekitaldia

egin du Gudarien plazan *Udalbiltzako Batzar Eragileak* egindako deialdiari erantzunez. Udal ordezkari batek ageria irakurriko du. Ekitaldian,

txalapartari, bertsolari, dantzari eta abeslariak ere izango dira. *Hernaniko Udalbiltzak* balkoietan ikurrina jartzeko eskatu die herritarrei. □

Benetako adiskidetasuna eta fraternitatea eskatu zituen Don Manuelek Gurutzbidean

■ 500 lagun inguru izan ziren eguzki giro ederrean ■ Gaurko meza orduak: Ereñotzun 10:30etan; Juan Bataiatzailean 11:00etan; Floridan: 12:00etan.



Hernaniarrak Santa Barbarako Gurutzbidean, Ostiral Santuan, hamaikagarren geldialdira bidean.

SANTA Barbara bitarteko 14 geldialdietan, Don Manuel apaizak Nazareteko Jesusen bizitzako azken orduak kontatu zituen. 12garren geldialdian, Jesus hil zutenekoan, parroko-

ak dei berezia egin zuen: "Gogoratzen dut orain urte batzuk, hemen bertan nola esan nuen eskubira dagoen herri honek [Hernanik] nazka ematen zidala gorrotoz betea zegoelako".

Motibo ezberdinengatik hilerrian zeudenen aipua eginda, Don Manuelek "benetako adiskidetasuna" eta "fraternitatea", lortzeko gauza izateko eskatu zien Gurutzbidean zijoaztenei.

SAN JOAN JAIK

Kartel lehiaketako azken eguna apirilaren 24a

■ Parte hartzeko Hernanin erroldatua egon behar du.



Iazko San Joanetako kartela.

2001-eko San Joanak iragartze-ko kartela lehiaketan aukeratu-ko dute. 40 zm luze eta 32 zabalekoa izango da. Lema: *San Juan jaiak. Hernani 2001.*

Biterin aurkeztu hilaren 24 baino lehen. Kartelak sinadurarik gabea behar du; izen-abizenak beste sobre batean satuta eraman. Saria: 45.000 pta. □

ORKOLAGA AUZOA

Sagardotegia antolatu du 'Martxan' auzo elkarteak

■ Maiatzaren 5ean (larunbata) izango da.

ORKOLAGAN festa giroa izango da maiatzaren 5ean. Musika aktuazikoak izango dira auzoan bertan, eta eguerdirako sagardotegia antolatu du auzo elkarteak.

Izena apirilaren 27a baino lehen eman Anboto eta Orkolaga tabernetan, Bikain (Koro) okindegian edo Mariano harategian. Prezioa: bazkideak 1500 pta, besteak 2500 pta. □


**HERNANIKO
KRONIKA
INTERNETEN**
www.hkronika.com

**ARALAR
TABERNA**
ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI



**IPARRA
SUKALDEAK**

**IPARRA
SUKALDE ALTZARIAK**
Zikuñaga 61 - Ibarluze - 7. lokala
Tel: 943 556760 - Faxa: 943 331975
20120 HERNANI

expert


TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK
ETXE TRESNAK

ANEXO

Martxoan eta apirilean eskaintza bereziak.

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

**MARI FIA
ARRANDEGIA**



Nagusia 36 Orkolaga 17
943 55 04 89 943 55 27 41
HERNANI

Hernaniarrek, Itzuliari paso

■ Ez zen ia inor bildu bide ertzero ■ Itzulia Rumsas lituanienak irabazi du La-sarteko erlojupekoan gailenduta ■ Bigarren, Euskalteko Alberto Martinez 5"-ra.



Pelotoia Galarreta jeitsi eta Laubidieta aldera. Aurretik beste talde bat pasa zen.

JASOTA BEZALA

BARIANTEA ETA TRAFIKOA
Iriki da Hernaniko Hego Bari-
antea. Barriantea esker, Her-
naniko barreetatik pasatzen den
trafikoa arinduko zela iragarri
genuen. Eta horrela behar du,
GI-131 errepidea erabiltzen
duten ibilgailu eta kamioiek
beste alternatiba aproposagoa
dutelako.

Baina, Barriantea irikitzeak
ez du hori berez ekarriko.
Oraindik, Hernaniko kaleetatik
barrena pasatzen ari den trafi-
koa haundia da. Bestelako neu-
rri batzuek hartu behar dira,
trafiko hori desbideratzeko.

Hona hemen gure ustez
egin beharko litzatekeena:

■ Hernanitik barrena dijoan
GI-131 errepidearen zatia Udal
errepidea bihurtzea eskatu
behar zaio Foru Diputazioari.
Honela, Sorgintxulotik hasi eta

Karabeleraino, sentidu batean,
eta Karabeletik Antziolaraino-
koa, bestean, Udaletxearen
ardurapean geratuko litzateke.

■ Behin Udalaren esku ego-
nik, honako neurriak hartu
litezke:

1. Zinkoen plaza berritu,
aurreko Udal Gobernuak egin
zuen proiektua edo antzeko bat
eginaz. Zinkoeneko trafiko
diseinua aldatzea komeni litz-
ateke, ibiltariei leku gehiago
emanaz.

2. Herrigunetik sartzen
diren ibilgailuen abaila mant-
sotzeko neurri ezberdinak
hartu, errepidea zenbait tokitan
estutuz, beste zenbaitetan se-
maforoak jarritz edo abaila
murrizteko diran bandak jarritz.

3. Galarreta, Karabel, Mar-
tindegia eta Mandazubir jarrita-
ko informazioa hobetu egin

beharko litzateke, puntu haue-
tatik datozenak ez-jakintasunez
herria gurutzatzera behartuak
aurki ez daitezkeen.

■ Beste neurri osagarri hauek
ere hartu beharko litzuzke
Udalak:

1. Aurreko neurri guzti
hoiek egin ezker, herri barre-
neko trafikoa gutxituta, Ertzain-
etxearen ondok Antziolaraino
dijoan errepidea ez da beharrez-
koa. Errepide hori egingo
balitz, ondoko pasealekua eta
parkea hondatu egingo litzuzke.
Beraz, bertan behera utzi behar-
ko luke Udalak proiektu hori.

2. Galarretara espaloia, al-
diz, oso beharrezkoa da. Oso
arriskugarria da oraingo egoe-
ra. Proiektua eginga dago, gai-
nera.

Hernaniko EA-EAJ

PELOTA (2. MAILA, BURUZ-BURU)

Esنال-Otxandorena gaur Elizondon

■ Arratsaldeko 17:30etan ■ Josu Oiagak Eugin joka-
tuko du 12:30etan: Oiaga-Mendia / Eraondo-Fuertes.

BIGARREN mailako buruz
burukoa jokoa da. Iñaki
Esnalek lehen partidua izango
du gaur, Besagain enpresako
kanporaketak pasa eta gero.
Kontrario Oronoz Mugaireko
atzelaria: Otxandorena.

Otxandorena peloteoan on-
do aritzen den pelotaria da.
Iñaki, ordea, artista da jokoa
nahasten, eta horretantxe saia-

tuko da. Sake-errematea izan-
go du gaurko arma.

IAZKOA HOBETZERA

Heraniarrek oso papel ona egin
zuen iaz buruz burukoan.
Finalurrekoetarako iritsi zen,
eta galdu ere txapeldunaren
kontra galdu zuen, Gonzalezen
kontra. Gaur irabazi ezker,
finalurrekoetan izango da. □

MUSIKA

'Akelarre' taldea gaur eta bihar Oialumen

■ Dantzaldia 20:00etan hasiko da.



Oialumeko dantzalekua Aste Santutan ere bizi-bizi.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalarri anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
►Gauetz: Diaz
Andoain, Nagusia 19
☎ 943 592057

OSTEGUNETAN ZATOZ 'BEZERO TXARTELAREKIN'

Eskaintza bereziak
aurkituko dituzu

Aitor AITOR PEÑA
FRUTATEGIA
Larramendi 5, Tel. 943 33 31 03
HERNANI

ARREGI
ALTZARIAK
Elkano 10-12 . Tel. 943 55 14 46
HERNANI

AURKI
Eskulanak/Arte Ederrak
Jkastaroak
Tlf.- 943 55 72 56
Elkano, 6. HERNANI

Uota gijamir, marmot, jowe alpi
ne jol fad, besid d
atzieta 41
(943)33 30 58

Kortsetegi - Mihisedenda
Haixea
Tlf.- 943 55 55 19
Kardaberaz 2 - 20120 HERNANI

PLAYTEX CACHAREL INTIMA CHERRI GEMMA
Hoki
LATSUNBE 4 - TEL. 943 33 16 87
HERNANI

IZASKYN KIROLAK
Elkano 9 - Tel. 943 556 055
20120 HERNANI

JAIONE
Kongelatuak
ELKANO 1 - Tlf. 943 55 07 8
20120 HERNANI

FOTOGRAFIA **Jose J. Etxarri**
Marisol
Gudarien Plaza. 7 - Atzieta 17
Tel. 943 55 26 45 - HERNANI

PRODUTO NATURAL **MASUSTA**
EKODENDA
Kardaberaz 43 - 943 55 57 10
HERNANI

MINER
JANARIDENDA
Nagusia 49
20120 HERNANI
943 55 01 36

LIBURUDENDA - PAPERTEGIA
LEOKADISTI
Urbietan etorb. 6 / Tel.943 55 12 29
20120 HERNANI

JANTZIDENDA
LOHER
EMAKUME ETA
GIZONEZKOENTZAT
Elkano 1 - Tel. 943 555 003 - Hernani

SUMINISTROS
ELECTRICOS
HERNANI
P. CARDABERAZ, 49-TEL. 557090
HERNANI
Kardaberaz 49 - Tel.943 55 70 90